

HORI EDO NI!... HAUTA HOR!

Comédie en un acte
13 à table

agertuko dira:

Etchek'andrea	30 à 35 ans
Haren sehia	50 à 55 ans
Izaba Kalaka	60 ans
Andre Veronika	
Luicha haren alaba	10 ans
Andre Marie	
Andre Luicha	
Andre Kattalin	
Gomitak	
Andre Terecha	

Un salon. Porte du fond donnant sur la salle à manger. Quand cette porte s'ouvre on aperçoit une table sur laquelle le couvert est dressé pour un grand dîner. Porte d'entrée à gauche. Porte de dégagement à droite.ameublement riche et de bon goût.

Scène I
Etchek'andrea
Erramona

Au lever du rideau, Etchek'andrea assise devant une petite table un crayon en main inscrit sur une feuille de papier la place que ses invités doivent occuper à sa table. Erramona au fond et à droite procéde à l'arrangement symétrique d'une corbeille de fruits.

ETCHEKANDREA:Erramona?

ERRAMONA....:(mugitu gabe) Etchek'andrea,

ETCH.....:Hauche da lana! Ez dakit, andre Verinoka ene eskuinean, ala ezkerrean eman behar dutan?

ERRAMONA....:(un peu bourrue) Ai, ei, ai!...nik dakita?

ETCH.....:Zure iduriko zoinek luke merezi ohorezko tokia, andre Veronika, ala andre Mariak?

ERRA.....:Zerbait erran nahi baitu, mahainen haratzago edo hunatchago izanikan ere?

ETCH.....:Segurki erran nahi baitu! eta eguneri dago baziakiarren beha bezalak moldatzea ez nuke nehori deusetan er huts egin nahi! Hortakotz badut egun zeri beha!...Adinez, andre Mariek behar luke lehen!

ERRA.....:Eta emazu beraz lehen!

ETCH.....:Ba...bainan;sortzes eta izaitz andre Veronika ohoragarriago baitu eta orduan ez dakit zer egin!...

ERRA.....:Bo!izan ditegen zure eskuinean ala ezkerrean balinbadute chitchi't; papa ausarki batere.

ETCH.....:Errazu uste duzula!

ERRA.....:Ai, ei ai!...Oi eta errakia!!!! zozokeria horiekia ahantzia nuen eta!!!ez ahal zaut bederen ene kiskaili!!???(Badoha lasterrez)

ETCH.....:(Bakarrik).Ba,zaharrena den bezala,dezagun beraz ohorezko tokia andre Mariari...Andre Veronikak onhartu du hola egin dezadan... konpainiako gazteena nahi lukete munduko emazteki guziek.

ERRA.....:(gibelerat heldu da)Ene errakia arras hein onean kausitu dut!... Eskuneko aldetik ezkerrerat itzuli dut,eta batere ez zaio gaitzitu.

ETCH.....:Ba, bainan,nere andre baziakiarak ez baitira ordean erraki azpial

ERRAMONA: Eni bethi bardinzait, heien asetzeko doia numbeitik atheratzen dutan ber!

ETCH....: Eta izaba kalaka! ?... nun ezarri dugu hura? ...

ERRA....: Baitezpada behar baitzinuen bazkaiterat ekarrarazi! ... Ez ginuen bertze beharrakorik. Nihori sosegurik ez duen emazteki bat... Bethi erzenkure dariola!

ETCH....: Ez dut bada bere maitez ekharrarazten! ...

ERRA....: Eta gauza segurra ez zautzula hura ere zure gatik heldu! ... Ase bat ere on! ...

ETCH....: Ori, ez nezaken bertzela egin! ... Hura gabe hama hiru gintazke mahainen.

ERRA....: Hamahiru!!!! Jesus, Jainko maitia! ... Puiés, puiés! Satan fuera!

ETCH....: Hots enuchenga! Funtserat joanez, gutimunta luke hamahiru izan gaitez en ala hamabi edo hamalau. Bainan ez dut nahi nehork deus erraitekokorik ezan dizan geroan.

ERRA....: Nik segurik hamahiru laguni bazkaiterat eman baino lehen, nahiago nuzke tokia hustu!!!

ETCH....: Zer Erramona funts hortan bakarrik utziko nindukezu? .

ERRA....: Nigangabegian! ... bainan...

ETCH....: (amicamente) Alo, Erramona, ez zare chocho bat, zozokeria horien ~~hola~~ sinhesteko? ! ...

ERRA....: Zozokeriaz bertzerik bada hor! etchekandrea, behin gerthatu naiz hamahiru lagunetako bazkari batean.

ETCH....: (riant) Eta gero? ;ez zare hil?

ERRA....: Ez, ni ez! ... Bainan han zen emazteki hetarik bat hil zen urte hartan berian.

ETCH....: Oh! gaicho! ... eta zer adin zuen

ERRA....: Eauetan hogoi eta hamasei urthe... eta medikuak erran zuen, ez balitz orduan hilden tenorean oraino bizirik zitekela behar bada! ... Eta nork dakibere bere ehun urtheak en ez othe zituen atchemanen! ...

ETCH....: (riant) Hori guzia ba! Beialako acheriak ez zitzion hobeki mintzatuko Jaun Kapitainari. Behazu, behazu, 96 urthetan hola hiltzen jendea gaicho atchoa!

ERRA....: (vexée) Egizuirri ba! bainan nik daukat emazte gaicho hura ez ~~sala~~ oino hilen, ez balitz bazkari hartan hamahiru garren hala suertatu.

ETCH....: Hots, beharrik izaba kalaka hor baitugu guzien chuchentzaile! ... hamalau gare gaur goiti harekin... (on sonne)

ERRA....: Cho! ... Huna non diteken! Joka nezake hura dela jada hemen! ... Tripa joko horietako; hego, hura lehen.

ETCH....: Ichil zaite! ... Zertan ginitazke gaur! hura gabe? hamahiru

ERRA....: Hala da ~~hori~~ ere! Bainan, ori holakorik balaki, hura den pozoinarekin uste dut aire berean joan litekeria etcherat.

ETCH....: Baditake! (Nouveau coup de sonette) Zoazi, zoazi, idekosu etchea, eta zalu! (Elle sort en courant)

ERRA....: Ba, ba, ... eta aldi huntan, arras gogotik! Hamahiru bertzenaz! ... Uii! ..

ETCH....: Nun emanen dut? ! ... Annaren ondoan? ... Ez , ez dute, elgar jasaiten ahal Nun ba! ...

ERRA....: (accourant alarmée) Etchek' andrea, etchek' andrea. depechabat!

ETCH....: Hean hean! (Erramona lui présente la dépêche en tremblant) Zertako izitzen zare?

ERRA???: Paper tzar horiek ez ditut ikhusten ahal begien bichtan! galtcha-gorrik asmatuak direla iduritzan zauzkit bethi!

ETCH....: (Poussant un cri) Ah! Jainko maitea!

ERRA....: Zer da! zer da! ... Makur zerbait? ... eta banuen beldurra! ...

ETCH....: Andre Teecha gaicho!

ERRA....: (tremblant) Zure iloba? Zer da? Hil?

ETCH....: Ez, ez...doi doietarik eskapatua hatik... (lui tendant la dépêche) Oui, irakunazu.

ERRAMONA....:(lisant avec peine)"Ichtrei pou...batean...Hango...besoak...hautsirik...Nehola ere ezin ethor maiteke zurekin izanen naiz...bihotzez Gaicho andrea...Zer gertatzeko!

ETCHEKANDRE:Otomobilean zoalarik gerthatua!Gauza segura

ERRA.....:Otomobilea ere galtcha gorriren asmuatarik oraino!Ez naukate holako batetara igaiten!!!ikusirik.

ETCH.....:(riant)Zu zare itzala berak izitzen zaitu.

ERRA.....:Gure gazte^f denboran ez zen ikusten zuzko mazina horietarik... hola hala ez zen ere orai bezenbat zango;beso hausten!!

ETCH.....:Gure Terechak den baino gehiago ez othe dauku gero erraiten?

ERRA.....:Orduan, hura da zorthe tzar emaile horren guziaren emaile...Batera ez dugu gaur harren beharrik.Airez aireigorri behar duzu dohala bere etcherat!...

ETCH.....:Etcherat Igorri??? Ez dautazu lan tcharra emaiten!

ERRA.....:Nahiko dugu beraz hil, eta hil aurthen berean.

ETCH.....:Nahi duzu hokakorik ez aiphatu!Nere besta egunwan!!...

ERRA.....:(larmoyant)Zure ondotik gero laster nere aldi, Etxekandrea!....

ETCH.....:Hauche dire gure solasak!(ons sonne)

ERRA.....:Hura ditake oraikoan!Athea idekiko diot bainan gaur hura hemen gelditzeko ni bahoha!

ETCHE.....:Ez dautazu holakorik eginen, Erramona.

ERRA.....:Hura edo ni!...hauta hor!(Elle sort).

Scène II

ETCH.....:Hauche da athekan naizena!!Zer egin?Nere neskato on bainan thematuak utziko nau ez baditut harek erranak egiten!!Segur gero!Oh baiordu oneko ekharrarazi dutala nere izaba kalaka!!!Bainan hala hala,nork sekulan asmatuko zuen Terecharen gerthakau hoi?Oi ama! zer egin?...Zerbait aitzakia behar nuke! izaba kalakaren etcherat igortzeko!...Bainan zer?

Scène III

ETCH.....:(Erramonz revenant).Ogi zalea zen hor!

ETCH.....:Eta!...

ERRA.....:(maussade).Denak makur issaiteko ez dauzkit ogi pottolook ekharri! Nik hainbertze ogi lucheaek sitzan gero!

ETCH.....:(souriant)Hori baizik es balitz!

ERRA.....:Hori, bat eta bertze jinen direnak bertzalde!

ETCH.....:Bertze itzuli bat egiten du ogi zaleak eta horra.

ERRA.....:(bourrue)Ba erran diot bururik ez duenak zangoak behar dituela eta salhu ekar ditzan niri, nik behar bezalako ogiak!

ETCH.....:Horrela, denak nahi bezala dituzkegu beraz buru hortarik.

ERRA.....:Eta horiek guziak, hamahiru behar garelakotz egun mahainean!!!

ETCH.....:Hortarik ar zaizkit oraino.Nardagarria zaizkit azkenean!...

ERRA.....:(éclatant en sanglots)Hi! Hi! Egundaino ez daut Andreak holakorik erran,hi! hi!hi!

ETCH.....:Oh!Barkatu Erramona!Ez dautzut gero penarik egiteko egin nahi!

ERRA.....:(à travers ses sanglots)Badakit ba Etchek'andre hi!hi!Egungo egunak nahi du horin makur gertha ditezen guziak!...hi!hi!hi! hamahiru mahainean...

ETCH.....:Hots;Erramona ichil zaite othoi,eta berriz ere barkatu!

ERRA.....:(se fachant)Zuk niri barkatu!...nahi nuke holakorik ikusi!...

ETCH.....:(riant).Ez zare beraz hasarre?

ERRA.....:(s'attendrissant)Hasarre?bai zera!sobera maite zaitut Etchek'andre hasarre luzaz ni egoiteko.

ETCH.....:Jainkoak esker duela!...mintza gaiten beraz gure bazkariaz!...

ERRAMONA... : Hola hola da. Beraz lehen lehenik Izaba Kalaka etcherat igorri behar da.

ETCHEKANDRE : Ez, zaudē eginen dugu bertzela! Oino ez batire hameka denak, joanen zare jauzi batez kusia Margaitaren etcherat eta erranen diozu othoi jin dadin gaur bazkaiterat atzegin handia eginen dau kula guzieri!

ERRA..... : Bardin... Bainan ene errakiari nork behatuko dio???

ETCH..... : Hemendik bi urratsetan dugu kusia Margaita... laster hemen zaitzate beraz. Nahiago baduzu karrosa bat ere hartu?.

ERRA..... : Horitchet da!! Karrosan ni ibil ozi! eman zait!!!. Zer duzu diruz ezin atohikia? Andreak hobeluke bertze zerbaitentzat atchikitzea diru hori!ez banintz hemen kasu pichka baten egiteko, Andreak ez eskale beharluke hil... Eta miseria! gorrian.

ETCH..... : (riant) Baietz, baietz Erramona! bihar churituko ditugu guziak, orai erna zaite!!!

ERRA..... : Banoa... Bainan kasu othoi ene errakiari.

ETCH..... : Khonda zazu nere gainean!.

ERRA..... : (remontant en maugréant) Ez naiz ez ni ere gehiago hogoi urtheastan harat hunat hortche nala nahila ibiltzeko... Bainan hola karrosa bat ere har nik enetzat... Badut hoberik! (arrivée près de la porte de sortie elle pousse un cri) Oh!!!

ETCH..... : (sursautant) Zer?... zer da berriz oraino?...

ERRA..... : (redescendant) Andrea ez da oroit, kusia Margaita, Akhitzeko mai notan dela?...

ETCH..... : Oh! hala da!... Zinez hauche da gauzen makjur gerthatzea?.

ERRA..... : Ez ditake bertzerik hamahiru lagun behar dixerik mahainean!

ETCH..... : Nor behar dugu ekharrarazi?... Zer eginen dut? Norat joka? nor ekharraraz! Nor!... Nor! (on sonne)

ERRA..... : (allant ouvrir). Ogi zalea.

ETCH..... : (suffoquée); Zer?... Ogi zalea?... ez zinuke bada nahi ogi zalea eman dezagun hor mahainean.

ERRA..... : (s'arrêtant étonnée) Nik holakorik?

ETCH..... : Zuk ba!... galdu duzut nor behar nuke ekarrarazi eta ihardetsi dautazu! Ogi zaleari.

ERRA..... : (riant) Bainan ez. Erran duzut ogi zalea ginuela athean; eta zuk uste izan duzu...

ETCH..... : Eta, harritua ere nindagon!...

ERRA..... : (redescendant) Funtserat joanez, zertako ez?

ETCH..... : Emazteki, hori ene mahain berean!...

ERRA..... : Ez da batez bada aberatsa! bainan denetaz ongi ikhusia da (on sonn

ETCH..... : Ez dut deus erraitekorik horrentzat!... Bainan ez dezaket ene bazkaltiar andreen artean, jende langile bat hola eman?

ERRA..... : Ez duzunaz gero hautarik.

ETCH..... : Ez daitekena da! Ez duzu bada ikhusten Erramona?!...

ERRA..... : Hori da! Nik badakit bethi zer egin!... Ori!... (dénouant son tablier) (comme si elle voulait partir)

ETCH..... : Bainan; Erramona!.

ERRA..... : (sortant) Hura, edo ni!... Hauta hor!

ETCH..... : (seule). Ene ogizalea baskaiterat gombida. Ez, ez daitekena da.

Scène LV

Etchekandrea. Erramona. Ogizalea.

Ogizalea est en tenue de travail et porte des pains dans son tablier bleu. Pour produire un amusant contraste avec la charbonnière qui paraît à la scène VI, elle doit être très enfarinée.

5

ERRAMONA....:(poussant la porteuse) Sar zaite, andreak nahi dautzu zerbait erran!...

ETCHEKANDREA:Ez!... Baitez pada!...

OGIZALEA....:Agur Andre, zure zerbitzuko!...

ETCH.....:(à part). Itchura pulliteko emaztekia liteke!.

OGIZ.....:Andreak badu zerbait errentura ogiaz.

ETCH.....?: Oh!ez!... ongi urrun da.

OGIZ.....: Eta, nindagon, zer mila sorgin othe zinuen!...

ETCH.....:(à part) Oh hori ashopaldia!(Erramonari). Ez, ez ditakena da!...

ERRAMONA/....:(dénouant son tablier). Zure hoben beraz!

ETCH.....:(bas). Zaude!(ogizaleari) Errazu nola deitzen zaren othoi? .

OGIZ.....: Andre Katicha.

ETCH.....:(embarrassée) Beraz Andre Katicha... arrasene gogorakoa.

ERRA.....: Oh! ba!... andreak itsutuki maite zaitu.

ETCH.....: Hainitz ongi entzun dut zuretako.

OGIZ.....: Ez naiz batere harritzen.

ERRA.....: Arras gichakoa zarelakotz, andreak nahi zintuzke baz..kai...

ETCH.....:(l'interrompant). Errazu, goizik akhabatzen duzu zure itzulia... Sarri, adichkide baitzu heldu zauzkit bazkaiterat... eta nahi nuke.

OGIZ.....: Bacheren garbitzerat jin nadien, ez dea hala? Ethorriko nitzaus zu ethorriko eta garbituko dauzkitzut nik, aire matzo zure atsoat jikindu bacher eta gauzak; oro!!!

ETCH.....:(à part) Hauche da mintza moldea?(Erramonari) Entzun duzu?... Ez dezaket nik hori ene mahainean eman?.

ERRA.....:(bas) Hori edo ni!.. (elle fait semblant de dénouer son tablier

ETCH.....:(à part) Jainko maiteal gain gainetik manatuko diot hitz bat ez dezan atherre mahainean.

OGIZ.....: Andreak nahi banu, berrogoi sos nahi nituzke oreneko.

ERRA.....: Berrogoi sos?...

OGIZ.....: Denek hala emaiten dautate.

ETCH.....: Bertzerik nahi nuke zure ganik.

ERRA.....: Zertako gauza ez erran den bezala?...(ogizaleari) Andreak; bazkai tera nahi zinduzke sarri eguerditan, eta horra guzia!...

OGIZ.....: Ni!, bazkaitera zurekin!

ETCH.....: Ba, ene atzegina litake!

OGIZ.....: Zer duzue, nitaz irriz ase nahi?

ETCH.....:(très digne) Oh! ez ongi urrun da.

OGIZ.....: Bainan hor bada zerbait?

ETCH.....: Hala iduri luke... bainan ez!...

OGIZ.....: Sabu zuek eta, hemen nago astaña bat bezala, dena zozotua akele zahar bat iduri!...

ETCH.....: Zato gurekilan bazkaitara, gauza bat bakarrik galdatuko dautzut mahainean ez zaitezen mintza batere!! hitz kuntza batzu baititu pichka bat gizen airetto bat dutenak.

OGIZ.....: Dakitan bezala mintzo naiz ni! Eta gero hortchet behar balin badut egon ahorik idki gabe ahate mutu bat bezala nahiago dut hantchet egon nere etchean, mihi azpiko zaina koropilekrik egin gabe.

ERRA.....:(alarmée) Ez duzu holakorik eginen?

OGIZ.....: Bada beraz hor nik asmatzen ez dudan zerbeit?

ERRA.....: Ori, huna, hamahiru lagun bagira egun bazkaiteko eta hamalaugarren zu nahi zinduzkegu!

ETCH.....: Othoi ethorriko zira?

OGIZ.....: Ethorriko!

ETCH.....: Ez ethorriko beraz?

OGIZ.....: Andre Ogizalea bat izana gatik badut nik ere ene gisako urgui-

5

OGIZALEA.....: Andre Ogizalea bat izana gatik badut nik ere ene gisako
urguilua!... Agur eta bertzaldi bat arte!(elle value et sort).
ERRAMONA.....:(la suivant) Andre Katicha! Andre Katicha!
ETCHEKANDREA:Hala da!... Egia dio...ez da funts hortan ogizale bat ere gom-
bidatzen!...

Scène V

Etchekandrea. Erramona.

ERRA.....:(revenant désolée). Ez du deus entzun nahi.
ETCH.....: Egin ahalak egin ditut bizkitartean.
ERRA.....: Orduan, doi doia erran bezala behar da Izaba Kalaka etcherat
igorri...
ETCH.....: Berriz erraiteko ez nauzu atheka beharrean emaiteni!.
ERRA.....: Bego hoi nere gain. Nik despeituko dut eta zalukara oraino.
ETCH.....: Ez, ez dut nahi.
ERRA.....: Non ez den bertze bazkaltiar bat hor eritzen.
ETCH.....: (avec reproche). Oh! Erramona.
ERRA.....: Sobera zorrion ez othe ginuke?
ETCH.....: Jainko maiteak entzun ere zaude ichilik(on sonne).
ERRA.....: Oraikoan hora da! Ez banezo atherik batere idek?
ETCH.....: Zoazi eta sarraraz zazu!
ERRA: Urrikituko zautzu, Etcheko Andrea.(elle sort)

Scène VI

Etchekandrea. Erramona. Andre Kattalin

ETCH.....:(seule). Jainko maitea zatozkit ene laguntzerat.
ERRA.....:(poussant devant elle la charbennière) ahurie). Zato, sar zaite
aintzina.
ANDRE KATTALIN Zertako ekhartzen dela ni barne eder huntara, denak zikindulk
ko dela nik!
ETCH.....: Baduzu burutik, Erramona?
KATT.....: Agur Andre, ongi dela zu?
ETCH.....: Arras ongi milesker.
ERRA.....: (ichilik Etchekandrearri). Geldi arrazazu bazkaiten!...
ETCH.....: (abasourdie) Zer? Zer zinuke nahi!
ERRA.....: (bas) Ez baduzu bazkaitera gonbidatzen ni banoha.
KATT.....: Toki ederra dela hau abrematin! Ez dela nik deusik unkhituko..
esku beltza dela nik...bainan ez zikina...Ikhata dela bakhar-
rik!...
ETCH.....: (à part). Maino on bat harraraziko miot bazkal aintzinean.
ERRA.....: (bas) Erraiten diozu? ba ala ez?
ETCH.....: Hola beraz denaz gainean!...
KATT.....: Zaku bat ikhatza behar dela neri erosi.
ETCH.....: Ez, banuke oino zonbeit egunena etchean.
KATT.....: Zertako beraz, nahi dela zuk ni ikusi?
ETCH.....: Bi solas nahi nituzke egin!...
KATT.....: Ez dela nik egun asti handirik solasean egoiteko! Joan beharra
dela ni lanerat(allant vers la sortie) Bértze aldi batez ethor
riko dela ni.
ERRA.....: (bas, menaçante). Hori joan!...ni ere joan izanen da!
ETCH.....: Zaude...Zato othoi hunaraino!
KATT.....: (revenant). Beraz... behar dela zuk ikhatza?
ETCH.....: Ba, ez...Bazkaiterat nahi zituzket egun nere mahainean.
KATT.....: Bazkaiterat?...Ni?

7

ETCHEKANDREA: Ba, ez bazare segurik gure lanetan makhurtzen.
KATTALIN....: Ethorriko dela; ethorriko ni gogotik!...
ERRAMONA....: Indi oiloak eta denak janen ditutzu.
KATT.....: Zuk maite dela ni, hola niri jaterat emaiteko!... Zenbat orenetan
emaitean dela zu mahainean?
ETCH.....: Eguerditan chuchen.
KATT.....: Orduan badoala ni berala eskuen eta begitartearen garbitzerat...
Ethorriko dela ni esposeko soinak jauntzirik.
ETCH.....: Familatua baitzira?
KATT.....: Bai....eta badela nik sei haur! Ikusiko dela zuk zoin ederrak ene
haurrak.
ETCH.....: Egun horietarik batez erakutsiko dauzkidatazu.
KATT.....: Ta- ta-ta-ta, ichtantean, hemen dela niene sei haurrekin.
ETCH.....: Zure sei haurrekin jingo baitutzu?
KATT.....: Erran dela zuk, ethortzeko ni bazkaitarat.
ETCH.....: Bainan zu eta zu bakharrik.
KATT.....: Nik hainitz maitedela ene haurrak eta ez dela ni nihora joaiten
ene haurrak gabe!...
ETCH.....: Eta nun behar ditut eman zure sei haurrak. Jada bagira hamahiru.
KATT.....: Emanen dut batto ene belhaunen gainean bertze bat besoetan eta
beitzeak ene ondo ondoan, tinki, tinki!
ETCH.....: Ez holakorik aldi huntan!... Bertze aldi batez beharko duzu jin
hola; zure konfradia guziarekin.
ERRA.....: (suppliante) Errozu jin dadin egun eta bere haurrekin oraino.
ETCH.....: Zer behar ditut, ala ikhaztegiko haur eta jende guziak ase?...
KATT.....: Jin behar dela ni ala ez dela jin behar?
ETCH.....: Gaurko huntan ez!
KATT.....: Bueno, jinen dela beraz ni bertze aldi batez!... Adios (elle sort)
ERRA.....: (la suivant désespérée). Andre Kattalin! Andre Kattalin!

Scène VII

Etchekandrea. Izaba Kalaka. Erramona.

ETCH.....: (seule) EZ...ezin sinhetsia da ! Ikazkin bat ene mahainean. eta
bere sei haurrekin. (on sonne) Berreiz ere chilintcha! Ikaratzen
naiz, nor behar zautan athera aldi huntan.
ERRA.....: (annonçant) : IZABA KALAKA.
ETCH.....: (s'avancant) Agur ene ttantta maiteq.
IZABA KALAKA: Agur ene kloba (elles s'embrassent)
ERRA.....: (à part) Dugun ikus nola igorriko duen eta faratuko!
ETCH.....: Goizik hemen zare, izaba!
IZABA.....: Jendetasuna badakit aspaldi, iloba maitea (Izaba et toutes les i-
invitées doivent être en toilette de dîner, sans chapeau ni
manteau)
ETCH.....: Zu bezen ongi ikasiak balire guziak!... biba Izaba.
ERRA.....: (à part) Hori balin badu etchetik igortzeko molderik hoberena.
IZABA.....: Uste nuen guziak jinak jada kausituko nintuela!... Lehenago n̄eh̄o:
nehor etzen hola berant ethorriko.
ETCH.....: Ez, ez, oraiko egunean ez da jendetasunik gehiago.
ERRA.....: Ez dira ez gero guziak bardin gosetzen eguerdiak gabe (à part)
Athehikan hor!
IZABA.....: (vexée) Gure denboran ez zuten onhetsiko sehi bat hola egin
zadien, Etcheko andrearen solasen entzuten.
ERRA.....: Enetzat erran duzu hori?
IZABA.....: (ironique). Ez...ez ja! Gure ondokoentzat.
ETCH.....: Badakizu, hau aspaldian etchekoa bezala daukat hemen eta hain d
da berreneri atchikia! Erramona zoazi ichtant bat sukhalderat.

ERRAMONA.....:Joanen niz,sukaldean badutalakotz zer egin.
ETCHEKANDREA.:Ori horra ene bazkaltiarren izenak antola zatzu lerroak ahal
bezen polliko.
IZABA KALAKA.:Hau zer dako bat ba ahal daukuzu muntaturik gaur goiz hun-
tan, Erramona.
ERRA.....:(maussade) Hori sarri zuhaurek ikusi Etchekandreak baitezpada
behar zintuemaz geroz bazkari hortarat ekharrarazi.
IZABA.....:Gure artean dagola, bainan azkeneko aldian hemen bazkaldu
nintzalarik ohartu nintsen zure kruspetak hampatzeko orde
taloa bezen zabal zagozila eta nihon gosturik gabekoak zirela
ERRA.....:(vécée) Hartako hartu zintuen dudarik gabe behin bereziki.
IZABA.....:Zutaz harritzen naiz ene iloba, onartzen baituzu zure sehia
hola mintza dakidan.
ETCH.....:Barkha zazu Izaba maitea! Ez dautzu gachtakeriaz erran!!!
ERRA.....:Zertako erran du horrek ere ene kruchpetak ez zirela onak.
IZABA.....:Erran dezagun beraz ahotik ezin utziak zirela eta barkatu!!!.
ERRA.....:(naïvement) Ez da ofentsik.
IZABA.....:(très digne).Gaur, ene iloba, ez duzue ene jan edanen zain-
tzen lanik izanen! Ez duzue erranen ahalko behin berriz
hartu dutala. Ikusarte. (elle remonte)
ETCH.....:(désolée). Othoi...Izaba...
ERRA.....:(bas).Utzazu, joan dadien.
IZABA.....:Ez;..sobera gaitzitua naiz.Ez doa ene adinean holakorik entzu-
tea.
ETCH.....:(la retenant). Erramona urrikitura da, berak erranen ere d'aut
dautzun bezala.
ERRA.....:Nik?...Zertako behar diot deus erran!bera hazia da eta...
ETCH.....:Zaudé ichilik Erramona eta zato Izabari barkamendu galdetzerat
ERRA.....:Ba eginen dut ontsa zure atsegina egiteko Etchek Andrea. Eh
bien horra! Ez kruchpetak etziren onak. Horra zertako; Andre
hunek hartu zituen behin baino gehiagotan (appuyant sur les
mots). Ez zirelakotz onak penitentzia...
ETCH.....:Ez, ez zirelakotz onak ez, Erramona Jendetasunez bakarrik.
Zoazi orai sukaldearaino.
ERRA.....:(furieuse,grommelant entr ses dents).Ez onak ene kruchpetak!..
Zintzurrean geldituz trebes balitzaizko bederen!(elle sort
en emportant la corbeille de fruits).

Scène VIII

Etchek andrea. Izaba Kalaka.

ETCH.....:Ez othoi hasarre geldi ene sehiarentzat Izaba maitea! horren
erranak ez baitu munta.
IZABA.....:(se rassseyant) Baditake, ahanzterat eginen dut bainan segur
zure gatik izanen da.
ETCH.....:Ongi atsegina egiten dautazu.(elle s'assied).

Scène IX

Berak, Erramona. Andre Veronika suivie de Germaine portant un gros bouquet.

ERRA.....:(annonçant). Andre Veronika!
ETCH.....:(se levant, à sa tante) Berehala zurekin naiz Izaba(allant au
devant de ses invitées) Nere adichkide maitea...hemen zarezte
eta hoin goizik.
IZABA.....:Bai, halaichet!

9

ANDRE VERONIKA : Bihotzez derautzut besta on adichkide maitea... ~~Keien zazezte~~
Jainkoak agian emanen dauzkitzu zorion eta osarri nasaiki urt
urthe huntan guzian.

ETCHEKANDREA... : Esker mila eta... halabiz.

ERRAMONA..... : (à part montrant Izaba ~~Milaka~~). Horteko horrek ez dio ez
besta onik erran... Bazkariz hemen gelditzen denbora berdin
zaizko. (elle sort).

VERO..... : Hots, Luicha, zato andreari zure buketaren eskaintzerat eta
zure pedeiku politaren erraiterat.

IZABA..... : (se levant) Oi! ama! zer behar othe dugu ikhusi?... Ez zait
naski damutuko (avec intention) lehenik jin bainaiz hunarat.

VERONIKA..... : Oh! ez nintzauzun ohartzen!... Barkatu, nola zare?

IZABA..... : (doucereuse). Arras ongi milesker... Zuri galde egitea debalde
konplimendu liteke, behatzia aski da, gizentzen ari zare eta
egunetik egunerat.

VERONIKA..... : (séchement). Bazautzu???

ETCH..... : Hean, hean pertsuño horiek Luicha

LUICHA..... : (offrant son bouquet et recitant). Egun handi eder huntan...
(un silence)

IZABA..... : Labur aireño bat pertsuek!

VERONIKA..... : (vexée). Segi zazu (lui soufflant) gure bihotzak

LUICHA..... : (répétant)? Gure bihotzak... bihotzak gure (fondant en larmes).
Ez nitake orhoit ama!

VERONIKA..... : Chochoa ez bertzea. (navrée) Etchean hain ongi bazakien eta
zalutarra letzazke Matchin pertsulariak (se fachant) Nahi
ditutz erran zure pertsuak.

ETCH..... : Bego bera eta pollikii!!!... Erranen ditu erranen!! Zato ene mai-
tea... errazkitzu pollikio zure lerroak!!!

LUICHA..... : (à travers ses larmes). Egun handi eder huntan... egun handi,
eder huntan? Ez dakit gehiago!!!... Deus ez zait heldu...

ETCH..... : Hots ez egin nigarrik! Zato besarka nezazu... eta hola gaurko
aski izanen da. (elle la prend dans ses bras).

VERONIKA..... : Oh! Ahalge gorritua ni naizela; Etchean Paterra bezen ongi
zakizkan pertsuak.

IZABA..... : Ez gintuzten hola manatzen gure denboran. Bi zartakorekin
beharko ginuen lastrakko orhoitu eta erran.

VERONIKA..... : (furieuse à son enfant). Entzuten duzu zer dion Andre hunek!!
Zato hunat errazkitzu edo bertzenaz ez duzu gurekin kruch-
petik janen.

ETCH..... : Ez zazuela bada gaizki larderia. Ikusiko duzue ichtantean dena
erranen dautala eta tarrapataka gero.

VERONIKA..... : (l'entraînant dans un coin). Zato berriz oraino erakutsiko
dautzut!

Scène X

Berak; Andre Marie suivie de ses deux filles.

ERRA..... : (annonçant). Andre Marie bere bi alaberekink.
ANDRE MARIE... : Agur adickide maitea. (elles s'embrassent) Huna zuretzat
zenbeit arrosa.

ETCH..... : Egiatzki soberakina da!!!... Behazu Izaba maitea zein ederra
diren.

IZABA..... : Nik loreak maiteago ditut baratzean berean! Hola itsuski
pikatu gabe.

ANDRE MARIE... : (séchement). Jaunak eta halere. Dendarik gabe bertzaldian
beharko ditut ekharri loreak beren erro untzi eta menturaz
baratzearekin berarekilan.

40

ETCHEKANDREA:(embrassant les demoiselles) Ongi ethorri!... Andere gazteak.
Panpina batzu bezala emanak zaizte eta.

ANDRE VERONI:(Andre Mariri) Nola zare Andre maitea?

ANDRE MARIE.: Oh! barkatu. Arras ongi milesker(à Luicha qui est restée dans un coin) Eta zuk Luicha! Ez nauzu besarkatzen... Zer da hasarre?

VERONIKA....: Ez, ez... Luicha zato Andre Mariri aguraren egiterat.

LUICHA.....: (s'avançant) Agur Andre Marie.

MARIE.....: (l'embrassant) Zer nechka pollita! Zer ari ziren hor doi doia.

VERONIKA....: Konplimendu pollit pollit baten ikasjen... Hean dena errazu orai Andre Marieren aintzinean!

MARIE.....: Hean, hean loria gaiten guziak.

IZABA.....: Gure denboran etzen hoinbertze jestu egin beharko Andre Veronik

VERONIKA....: (vexée) Andre, nik nere haurra ene gostura altchatzen dut eta ez dut onhartzen nehoren manamendurik.

IZABA.....: Oh! ez nintzauzu manatzen hasiko behalakoan oraino.

VERONIKA....: Ongi egin baitzu.

ETCH.....: Othoi! aski hola!

MARIE.....: Hean, hean orai Luicha.

IZABA.....: Haizerik ez den urthean naski (un silence)

VERONIKA....: (vexée) Asa, Luicha nahi duzu zartako bat hartu, bai ala ez!

MARIE.....: Ez nigarrik egin arras... gaicho maiteari.

IZABA.....: Beharbada bi maus eman eta errechkiago lothuren zaitzue.

VERONIKA....: (furieuse). Zuk, ahalgarazten duzu!...

IZABA.....: Ez du aitchakia tcharra! Bertzalde banoa, jateko salan esku ukhaldi baten emaiterat. Gocha zaizte ongi zuen pertsu ederren entzuten! Zuen esku zartak haraino entzuen ahal ditut!

VERONIKA....: (Etchekandrea). Ez othoi gaitzi bainan ersaziko nau zure matanta horrek! Luicha orai errazu eta salu.

LUICHA.....: (réitant) Egun handi eder huntam, gure bihotzak lorietan Zure... zure... (éclatant en sanglots) Ez dakit gehiago... ez daki

VERONIKA....: Oh! ez dakit nik ere gehiago zer hari naizena.

ETCH.....: Eazkaria bururatzean, kruchpetak jatean erranen ditu, erranen ez dea hala!

Scène XI

Etchekandrea. Veronika. Marie; Erramona. Invitées.

ERRA.....: (annonçant) Andre Virginie, Andre Caroline, Andre Anita, Andre Marie-Josepa, (Etchekandrea va à la devant de ses invitées, salutations etc...)

VIRGINIE....: Beranchko heldu gare bainan ez othoi gaizki har!

VERONIKA....: (à part à Andre Marie). Oh! Izaba Kalaka hoi...ezin jasane da. Ez zautzu?

MARIE.....: Jakin banu hemen zitekela, ez ninduten gaur ikusiko.

ERRA.....: (bas à Etchekandrea). Izaba Kalaka etcherat igortzen duzu bai ala ez??

ETCH.....: Ez dezaket Erramona... Nola nahi duzu?.

ERRA.....: (éclatant). Ah! bai... Beraz ni banoha!... Hori.

VERONIKA....: (stupéfaite) Zer da, zer da! Erramona?

ERRA.....: Zer den? Huna. Izaba Kalaka hemen gel dikotz, hamahiru garela gaur mahainean!

DENAK.....: Hamahiru???

ERRA.....: Eta hoi. Izaba Kalaka, Andreak ez igorri nahozik. Hain maitea ere da egia erran.

GUZIEK.....: Fa! igorrazu! igor etcherat!

ETCH.....: (désolée) Ahal banu, gogotik.

14

ERRAMONA...:Hasteko, nik hamahiru laguni bazkaiterat eman dudan baino nahiago dut zango bat hautsi.
VERONIKA...:Erramonak egi dio! Behar duzu Izaba mgorri.
MARIE.....:Ez duzu bada igorri behar!
ETCHEKANDRE:Zuek aise mintzo zaizte...Ez du gehiago zangorik emanen ene etchean...
MARIE.....:Zer nahigabea!!Bainan baditake eta orduan ni banoa.
VERONIKA...:Eta ni ere ba!...
ETCH.....:(desepérée). Ez dautazue holakorik eginen?ene besta egunean.
GUZIEK.....:Igorrazu Izaba Kalaka.

Scène XII

Berakan Izaba Kalaka venant de la salle à manger, elle a enlevé son manteau.

IZABA.....:(à Etchekandrea) Orai berean ikusi dut ene tokia mahainean... Badakizu, nere iloba erromatismz josia naizela eta chuchen chuchena eman nauzu athe leihoen artean. Hor lostu eta zer behar ditut ala berriz bildu ene doloreak.
VERONIKA...:(agressive) Zer da bertze zonbeitentzat zuretzat on ez den tokia!
MARIE.....:Ez balinba!...Holakorik.
IZABA.....:(séchement) Ez naiz zueri mintzo.
ETCH.....:Ez zitzaitan gauza hori batere gogoratzen Izaba!!!
ERRA.....:Hola errenkuratu! behar dena miletan hobeki litake etchean.
IZABA.....:Zoazi zu zure lanetarat.
ETCH.....:(suppliante) Erramona!!
VERONIKA...:Hola da eta!! Supazter chokoan hobeluke miletan.
MARIE.....:Eta bertzalde jan edanak partida dituzte biziki erromatismek.
ERRA.....:Errozu hartarik.
IZABA.....:Bigarren aldikotz berriz ere errenkura zaizte ene janizaz. Aski hola...Banoa.
ETCH.....:Izaba, ez othoi holakorik.
VERO.eta.MAR:(la retenant) Utzazu eta dohala lasterrez.
IZABA.....:Ez du balio ene othoitzkatzea iloba maitea; ez naiz berdin geldituko.
MARIE.....:(Veronika et Erramona entourent Etchekandrea et l'empêchent de parler. Un silence) Ez tinitk erran gehiago.(un temps) Adios; Enekilakoak akabo izanen ditutzu...Azken aldikotz banoa zure ganbararat ene mantoaren hartzeko...Gero banoa eta bethikotz! (elle sort lentement).
GUZIEK.....:(joyeux) Huna hamabi garela azkenean, Ufa!

Scène XIII

Berak; Izaba Kalaka eskas. Andre Terecha.

TERECHA....:(entrant joyeusement) Huna; huna ni, ene zango beso guziekin.
ETCH??ERRA:(stupéfaites) Andre Terecha!!!
TERECHA....:Ez zinuten uste? Eta hola da bizkitartean.
DENAK.....:(harrituak). Egun dainokoano hamahiru berriz ere.
ETCH.....:Bainan zure depecha hora! Ez zinen minhartua?
TERECHA....:Ez, minhartze baizik ez dut!...gain gaineko eskaleretarik erori nintzalarik bizkitartean seigarren pausutik.
GUZIEK....:(cri d'effroi). Ah!!!!
ETCH.....:Zertako eman holako izialdura?
TERECHA....:Iduriturik gehiago boskafiatuko baizik ez zinuztela ni orai hemen ikuseta.

EXRAMONA....: Ba bainan horiek guziak hola Izaba Kalak doi doietan igorria dugu etcherat, harrekin hamahiru girelakotz mahainean.

TERECHA....: Zuek egiteko ez da bate sobera. (la tante qui a remis son manteau se dirige vers la sortie) Bainan huna nun dela! Zer zinioten bada.

Scène XIV

Berak. IzabaKalaka.

Tous les personnages entourant Etchekandrea et la suppliant)
EZ zazula utz, ez utz etcherat.

ETCHEKANDRE:(timtidement) Izaba!

IZABA.....:(hautaine) Barkatu ez dut ilobarik .

ETCH.....:Othoi! othoi Izaba maitea... Ez hola joan hemendik.

ERRA.....: Ez zinioke bihotz mina tcharra emanen bere besta egunean!... Ez ahal diozu holakorik eginen?

DENEK.....: Sobera maite duzu zure iloba holako lanik hori egiteko.

IZABA.....: Ez du balio hola othoizka eta agurka niri artzea. Holako egitáteak izanik ene bihotza gogortua eta hetsia, deusek gehiago ez baitu ez hunkituko ez idekiko.

TERECHA....: Ezin idek Saraila? Bortchatu behar da beraz. Denen artean eginen al ahal dugu ez da hola. Oh! batean.

GUZIEK.....: Ba! ba! bába zu!

TERECHA....: Erramona hets athea, eta ekhar salda mahainerat.

ERRA.....: Bietañ erran gabe(eille sort vivement);

IZABA.....: Guzien gatik ez naiz geldituko. Ez naizela geldituko. Utz nezazue.

TERECHA....: Ereman dezagun kadiran... Kadiran lumatzka eta eman ohorezko tokian gu guzien erdi erdian.

GUZIEK.....:(entourant Izaba Kalaka) Ohorezko tokian... Ohorezko tokian Izaba Kalaka.

IZABA?....:(se débatant) Ez dut nahi! ez dut nahi!

DENEK.....: Biba Izaba kalaka.(On la paort en triomphe à la salle à manger°

LUICHA.....:(les suivant en criant). Huna! huan badazkit orai ene pertsuak!
Badazkit!

ETCHEKANDRE:(sortant la drenière). Azkenean hamalau... Hamalau enuchent. Bérztzaldiko agian orai buruan hartuko dugu hobeagoak izan gitez-tela elgarrentzat... Eta gero hamahiru! Ala hamabi izan mahainean berdin minta duela hamahiruen jatekoa moldatua den ber eta hamabien bakarrik. Hamabien jatekoa hamahiru jale errabaturi emaitea hoi, hoi luken murts Erramona eta bertzeak.(la porte de la salle à manger se referme).
